



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF

DONOSTIAKO GOTZAINA
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

Donostia, 2026ko irailaren 3a

Anai-arreba maiteok:

Pastoral urte berri honen hasieran, bihotzez gonbidatzen zaituztet gure elizbarrutiko Elizarentzat bereziki ederra eta garrantzitsua den gertaera honetan parte hartzera: Enrique Ormazabal Jaunaren apaiz-ordenaziora, igandean, irailaren 13an, 18:00etan, Artzain Ona Katedralean izango dena.

Apaiz-ordenazioa beti da Jainkoaren opari handia eta elizbarruti osoarentzako poza. Horregatik, egun horretan kristau asko biltzea espero dut, gure presentziarekin, gure maitasunarekin eta, batez ere, gure otoitzarekin Enriqueri lagun egiteko.

Elizbarrutiko apaiz guztiak bereziki gonbidatzen ditut ospakizun handi honetara etortzera eta aldarean elkarmezan parte hartzera. Aukera ederra izango dugu gure presbiterioaren anaitasuna adierazteko eta elkarrekin apaiz-ministerioaren dohainagatik eskerrak emateko.

Alaitasun honek bokazioengatik konfiantzaz otoitz egiten jarraitzera bultzatzen gaitu baita ere. Jaunak deitzen jarraitzen du. Pastoral urte honetan, gainera, gure elizbarrutiko gazte batek apaizgaitegian hasiko du bere bidea. Itxaropen eta esker onerako arrazoi da hau gu guztiontzat.

Poz handiz itxaroten zaituztet denok. Pastoral urte hasiera honetan bat eginda, itxaropentsu eta prest egon gaitezela Jaunak gure eskuetan jartzen duen misiorako.

Nire maitasun eta bedeinkapena har itzazue.

In Corde Matris,

✠ Fernando Prado Ayuso, CMF
Donostiako gotzaina